


# INDUSTRI MILITARRA EUSKAL HERRIAN

## SARRERA:

Gizarte desmilitarizatu baten aldeko borrokan, ejerzitoaren deslejitimazioa agerian dagoenean eta soldaduzka nahiz ordezkoiari uko egiteagatik hainbat intsumiso espetxean edo zigortuak aurkitzen diren une hauetan, oraingoan militarismoari dagokion beste atal bat ikutu nahi dugu, hala nola gastu militarrei edo hobe esanda, industri militarrei dagokiona.

Beste balore batzuetan (elkartasuna, aberastasunen berbanaketa, berdintasuna,...) oinarritzen den gizarte mota baten alde borrokatzen dugunean ez dute inongo tokirik armen fabrikazioak eta lehenbaitlehen desagertu behar duela pentsatzen dugu, industri zibilean errekonbertituz, gastu sozialen eta gastu militarren arteko erlazio zuzena arrazoi nagusizat hartuta.

Osasuna, heziketa, etxebizitza eta beste hainbat arlo nagusien gainetik, gastu militarrek milaka miloi diren bitartean giza beharren murrizketa suposatzen du edo, hobe esanda, gastu militarrek beste gauzetako izan behar zukeen, diru kopurua eramaten du. Zer esanik ez "nazio pobreek" pairatzen duten egoerari buruz; gastu militarretan murgildurik behar sozialak, ugariagoak izanik, are gehiago murrizten dira eta gastu militarren ondorioz sekulako zorretan sartzen dira, beraien ekonomia armetan edo zorretan itotzen delarik.



Industri militarrek, bestalde, estatuen aldetik babes izugarria dute eta era berean estatu berak dira geroago biztanleriari faktura pasatzen diona, zergen bidez.


Honela, alde batetik, bertako industri militarra bultzatzen da, autoorniketarako eta bestaldetik, "Hirugarren munduko" nazioei exportatzen da, herri hauetan militarismoa bultzatuz eta kontrol politiko-ekonomikoa lortuz, eragindako zorren ondorioz.



## HITZAURREA:

Hemen azaltzen diren datoak (konkurtsoen adjudikazioak) urteko gastu militarretan "Zerbitzu eta Ondasunen erosketa eta inbertsioak" atalean Defentsa Ministeritzak 1990-91 eta 1992 urteetan gastatu dituenari buruzkoak dira, 1992. urtean %25 izanik.

Beraz, industri militarren tamainaz jabetzeko oso eskasa gelditzen da, eta osoki aztertzeko beste kapitulu ilun batzuk aztertu behar genituzke (exportazioak, proiektu sekretuak,...) gastu militarren esparruaz jabetzeko.



Aipatuko diren gehientsuak "Defentsako Industri Auxiliarra" izenekoak dira, hau da, nahiz eta armik ez fabrikatu zuzenki Defentsa Ministeritzaren aurrekontuetatik bizi direnak. Bestalde, Lantegiak edo faktoriak helbide soziala Euskal Herrian duten enpresak bakarrik hartu dira kontutan, estatu espainiarrean delegazioa edo fabrika nagusia dutenak baztertuz eta Euskadin kokatuz.

## DATU OROKORRAK:

90-91-92 hiru urte hauetan Defentsa Ministeritzak 28.000 milioi pezeta adjudikatu zituen, 103 kontratotan banaturik eta guztira Euskal Herriko 33 enpresa daudelarik. 1990 urtean 14 enpresen artean 1695 milioi ziren bitartean 1991 urtean 7031 milioi izan ziren (%31,4ko igoerarekin) 16 enpresen artean eta 1992an 20643 milioi 26 enpresen artean. Euskal Herrian eman diren adjudikazioak, estatu espainiar osoarekin konparatuz %2,42 zen 1990 urtean (70.000 milioitik 1695 Euskadin) eta 1992 urtean %22,67 (88.000 milioitik 20.000 milioitik gora). Urte berean adjudikazioak 58 arte igotzen dira.



## ENPRESEN ARABERAKO BANAKETA (20 lehenengoak)

	1990	1991	1992	GUZTIRA
Industrias de Turbo Propulsores (ITP)	547,1	2965,9	12980,1	16493
S.A. Placencia de las Armas (SAPA)	47,1	953,1	4705,8	5.706
Grupo Auxiliar Metalúrgico (GAMESA)	12,2	2247,3	500,0	27,59,5
Construcción y Auxiliar de Ferrocarriles (CAF)	—	29,6	610,0	639,6
CEGASA	52,9	283,6	279,1	615,6
Explosivos Alaveses (EXPAL)	414,0	—	118,8	532,8
Talleres Iruña	125,5	179,4	179,0	483,9
Firestone Hispana (FHISA)	99,6	—	347,6	447,2
Boinas Elósegui	189,0	—	63,2	252,2
TECOMAR	21,2	95,3	67,2	183,7
KRAFFT SA	54,6	30,0	38,5	123,1
Algodonera S. Antonio	—	93,7	11,1	104,8
Luso Española de Porcelanas	33,7	52,4	—	86,1
MARTEC	65,8	3,6	—	69,4
Textil Guipuzcoana	—	—	65,4	65,4
Prefabricados Metálicos	—	38,9	—	38,9
DANOBAT SCL	—	35,0	—	35,0
ALCONZA	26,3	—	—	26,3
SENER Tecnología Industrial	—	—	22,2	22,2
PRO-RAY	—	6,4	12,4	18,8

### SEKTOREA BANATUZ:

Jasotako 130 adjudikazioetatik hamabost sektoretan banatzen da, nahiz hauetako bosten artean (aeronautika, armak, ibilgailuak, material elektrikoa eta konfekzioa) %97,68 monopolizatu. Bost hauen artean berezitasunak ere nabariak dira:

— Aeronautika: 16.493 miloikin Euskadin adjudikatutako %57 suposatzen du, 1992an %64,7 izatera iritsi da.

— Armak: Ia 9.000 miloikin (hiru urtetan) adjudikazio osoetatik %31,25 suposatzen du, garrantziz bigarren sektorea delarik. Estatu osoko adjudikazioak kontutan hartuz Euskadira %76,5 ekarri du armagintzaik 1992. urtean.

— Ibilgailuak: 1.754,4 miloikin, adjudikazioen %6,09 izanik.

— Materiale elektrikoa: 641,9 miloikin, adjudikazioen %1,4 Euskadirentzat.

— "Alimentazio" sektoreak 1992 urtean 15 adjudikazio ditu, kontutan izanik 58 zirela guztira, nahiz eta kantitatez seigarren tokian gelditu 56,8 miloikin.



SEKTOREAK	1990	1991	1992	GUZTIRA
Aeronautika	547,0	2965,9	12980,1	16493,0
Armak	473,3	3200,4	53,24,6	8998,3
Ibilgailuak	246,3	304,3	1203,8	1754,4
Mat. Eleektrikoa	79,2	283,6	279,1	641,9
Konfekzioa	189,0	93,7	139,7	422,4
Olio eta Lubr.	54,6	30,0	38,5	123,1
Besteak	33,7	52,4	—	86,1
Elektronika	65,8	3,6	—	69,4
Elikagaiak	—	—	56,8	56,8
Makina eta tresneria	6,53	5,5	7,1	49,1
Altzairuak	—	45,4	—	45,4
Eraiketak	—	—	22,2	22,2
Osasun Mat.	—	6,4	12,4	18,8
Bulego Eta edizio Mat.	—	11,0	—	11,0

## SEKTORE PUBLIKO ETA PRIBATUA:

Euskal Herrian, Defentsa industriaren ezagupenak aztertzeke garaian, behar beharrezkoa dugu bi argibide azaltzea:

\*Zuzenki edo zeharka Defentsa Industriari loturik dauden sektore publikoko enpresik ez egotea.

\*Aurrekoarekin kontrajarriz, sektore pribatuko enpresen konzentrazio garrantzitsua, estatu espainiarreko buru izanik enpresa pribatuei dagokionean.

“Defentsarako Industri Auxiliarran” enpresa pribatu ugari egotea (oinetakoak, makina eta tresneriak, elikadura,...) ez da harritzekoa, baina aeronautika eta arma (leherkariak barne) kontutan Euskal Herriak lehen postua betetzea estatu mailan azpimarratzekoa ikusten dugu.

## ENPRESEI DAGOKIEN BANAKETA:

- Industria de Turbo Propulsores (ITP), Zamudio, BIZKAIA, Aeronautika.  
11 adjudikazio..... 12.980,1 miloi (%64,6).
- Sociedad Anónima Placencia de las Armas (SAPA), GIPUZKOA. Armak.  
21 adjudikazio.....5.706 miloi (%23,4).
- Grupo Auxiliar Metalúrgico S.A. (GAMESA), ARABA.  
7 adjudikazio..... 2.759,5 miloi (%9,5)





Gelditzen diren 30 enpresetatik beste bigarren talde bat egin daiteke bost enpre-  
sekin, orokorretik %1a suposatzen dutenak gutxienez:

- Construcción y Auxiliar de Ferrocarriles (CAF).  
Betetako lana; itsas armadako infanteriako ibilgailuen mantenimendua  
2 adjudikazio..... 639,6 miloi (%2,2).
- Celaya, Esperanza y Galdos (CEGASA). GASTEIZ. (Filiala SAFT IBERICA)  
Lana: Torpedoentzako pila legorren fabrikazioa.  
3 adjudikazio..... 615,6 miloi (%2,1)
- Explosivos Alaveses (EXPAL). Exportazioari zuzendua.  
Lana: "Aire combustible" izeneko bonbaren fabrikazioa f-18 EA.CA delako  
hegazkinarentzat.  
3 adjudikazio..... 500 miloi.
- Talleres Iruña.  
Lana: "Transporte oruga acorazado" delakoaren zati ezberdinen fabrikazio  
dorreak, torretak, konbateko karroentzat.  
9 adjudikazio..... 500 miloi (%1,6).
- Firestones Hispania S.A. (FHISA). Basauri.  
Lana: Ibilgailu militarren ordezeko kubiartak.  
347,6 miloi (%1,5).

#### **Besteak:**

- TECOMAR: akorazatuentzat motorrak; 183,7 miloi.
- BOINAS ELOSEGUI: txapelak,...; 252,2 miloi.
- KRAFFT: motor olio eta lubrikanteak; 123,1 miloi.



	1990	1991	1992	GUZTIRA
Adjudikazioak	38	34	58	130
Adjudikatutako miloiak	1695,4	7031,7	20064,3	28791,4
Aurreko urtearekin gehiketa	—	+%314,75	+%185,	—
Estatukoen %a	%2,42	%9,90	%22,67	%12,5
Enpresa kopurua	14	16	26	33

	1990	1991	1992	GUZTIRA
ARABA	544,9 (13)	2534,5 (4)	925 (14)	4004 (31)
BIZKAIA	679,4 (5)	3015,8 (12)	13359,6 (15)	17054 (32)
GIPUZKOA	345,6 (14)	1295,6 (15)	5583,3 (25)	7224 (54)
NAFARROA	125,5 (6)	185,8 (3)	201,9 (5)	512,2 (14)
EUSKADI	1695 (38)	7031 (34)	20064 (58)	28791 (130)

	1990	1991	1992	GUZTIRA
Armak	47,1	953,1	4705,8	5706 (%79)
Ibilgailuak	21,2	124,9	677,2	823,3 (%11,3)
Konfekzioa	189,0	93,7	139,7	422,4 (%5,8)
Besteak	88,3	123,9	60,6	272,8 (%3,8)

	1990	1991	1992	GUZTIRA
Aeronautika	547,0	2965,9	12980,1	16493(%96,7)
Ibilgailuak	99,6	—	347,6	447,2(%2,6)
Besteak	32,8	49,9	31,9	114,6 (%0,7)

ARABA	1990	1991	1992	GUZTIRA
Armak	426,2	2247,3	618,8	3292,3 (%82)
Mat. Eleketrik.	52,9	283,6	279,1	615,6 (%15,3)
Besteak	65,8	3,6	27,1	96,5 (%2,7)

NAFARROA	1990	1991	1992	GUZTIRA
Ibilgailuak	125,5	179,4	179,0	483,9 (%94,47)
Besteak	—	6,4	22,9	28,3 (%5,52)



## KONKLUSIOAK:

- Sektore publikoan ez egotea enpresik.
- Euskal Herriak, sektore pribatuari dagokionean, estatu mailako lehen postua betetzen du.
- Industri nagusienak Aeronautika eta Armagintza dira.
- Material militarra fabrikatzen duten enpresen dentsitatea (populaketa eta espazio geografikoa kontutan hartuz) Araba eta Gipuzkoa dira ugarienak.
- Enpresa garrantzitsuenak ez dute zuzentzen soilik merkatu estatalera, baizik eta exportazioetara ("Hirugarren mundura").
- Organizazio sindikalen itsutasuna, produkzioa eta honen helburuetan eta ondorio sozialak aztertu baino lanpostuen kontuetan itotzen direla, errekonbertsio zibilari ateak itxiaz.
- Diputazio, gobernu eta beste instituzioek ematen dieten laguntza ekonomikoa, sektore militarra mantenduz eta bultzatuz.

## OBJEZIO FISKALA:



**Informazio bulegoa: Urdaburu Kaea 4, behea. LEZO Ostegunero 7etatik 9etara ZATOZ!!!**

Gaur egungo gizarte honetan, (garapen teknologikoak, armen merkataritza, estatua-ren lurraldetasuna mantentzeko armadak duen zeregin politikoa, etabar) militarismoaren adierazpide garbiak dira. Gure gizartean eta nazioarteko ordenuan militarismoa nonnahi dago.

Ahots eta modu asko agertu dira egoera hau salatzeko, non in-tsumisioa, objezioa, etabar. Horietako bat ERAGOZPEN FISKALA edo OBJEZIO FISKALA dugu. Honen bidez, eragozleak desobeditzeko, militarismoa baztertzeko eta errefusatzeko deia egi-



ten du. Udaberriarekin batera Errenta Aitorpena egiteko aldia heltzen da eta berarekin batera, gastu militarrei eragozpena egiteko aukera azaltzen zaigu. Gastu militarrei eragozpen fiskala egitean, militarismoari gure laguntza ukatzen diogu, eta bide batez benetazko defentsa proiektuaren aldeko bidea urratzen dugu, ondoko ezaugarriak dituen defentsa alegia: gutxiengo pribilegiatuen interes ekonomikoak bazterrean utzita, giza eskubideen aldeko aukera egiten duen defentsa; planetako biztanle guztien behar pertsonalekin eta herrien interesekin bat datorren defentsa.

Errentaren diru kopuru bat, militarismoa eusteko erabili beharrean, proiektu alternatibo batetara desbideratzen dugu. Horrela, eragozle bakoitza libre da nahi dezan proiektua aukeratzeko. Proiektu ugari eta desberdin dago aukeratzeko.

Eragozpen fiskala egiteko eta proiektu alternatiboetarako buruzko informazio gehiago nahi baduzu, pasa zaitez edozein ostegunetan, 7etatik 9etara, Urdaburu Kalean kokaturik dagoen Informazio Bulegotik. Zure galderak erantzuteko prest gaude!!!

## LEZOKO INTSUMISO TALDEA

